

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 4730

*AGINDUA, 2024ko irailaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez BIOEF Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren Medtech ekimena garatu, baliozkotu eta erakusteko proiektuetarako laguntzetarako deialdia egiten baita.*

Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioa –BIOEF– Osasun Sailak sortutako tresna da, EAEko sistema sanitarioan berrikuntza eta ikerketa sustatzeko. Lankidetzeta, komunikazio eta elkarlanerako esparru bat da Fundazioa, erkidegoan, Estatuan eta nazioartean, osasun-alorreko ikerkuntza eta berrikuntzan diharduten sektoreei dagokienez. Gainera, programa eta politika sanitarioak eta sektoreartekoak funtsatzen laguntzen du BIOEFek, sistema sanitarioak kalitate eta lehiakortasun handiagoa izan dezan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan aberastasuna eta garapen sozioekonomikoa sortzen laguntzeko. Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuari jarraikiz, BIOEF sail horri atxikitako sektore publikoko fundazio bat da, eta Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari laguntzen dio zuzendaritza horri dagozkion funtzioetan.

Osasun Sailaren eskumenetako bat da osasun-zientzien alorrean ikerketa-jarduerak sustatzea eta planifikatzea, EAEko sistema sanitarioa etengabe garatu eta hobetzeko funtsezko elementua baita hori. Horri dagokionez, EAEko sistema sanitariotzat hartuko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 5. artikuluan zehazten dena.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Biomedikuntzako Ikerkuntzari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen duen irailaren 5eko 17/2022 Legeak ikerketa sanitarioa sustatzeko erreferentzia-esparru bateratu bat eskaintzen dute, eta era eraginkorragoan funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Esparru horretan, Osasun Sailak, 2022-2025 aldirako Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiaren barruan, ikerketa eta berrikuntza sustatzen ditu bi esparru estrategikoen bitartez, eta 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean (ZTBP 2030) lagundu du. Plan hori RIS3 Euskadi espezializazio adimenduneko estrategian oinarrituta dago eta bere lehentasuneko hiru arloetako bat osasun pertsonalizatua da. Azken helburua EAEko gizartearen bizi-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzea da. Horretarako, 2030. urtean EAE Europako eskualde aurreratuenen artean kokatuko duen berrikuntza-politika bat baliatuko da, eta bikaintasun zientifikoa eta talentua izango dira oinarri estrategikoetako bi.

Deialdi hau aipatutako ZTBP Euskadi 2030 planaren barruan dago. Bertan, euskal gizarteak etorkizun hobe bat bilatzeko duen konpromisoa islatzen eta irudikatzen da, zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatuz, EAE digitalago, berdeago eta inklusiboago (alderdi sozial eta sanitarioan) baterako trantsizioa bizkortzeko. Testuinguru horretan, osasun pertsonalizatua hiru lehentasun estrategikoetako bat bezala identifikatu da. Estrategia horren barruan, EAEk ikerketa- eta garapen-arloetako helburuak lehenetsi behar ditu, energia garbiagoekin eta industria adimendunarekin batera.

ZTBP Euskadi 2030 planarekin lerrokatuta, 2022-2025 aldiko Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiak (OIBE 2022-2025) EAEk osasunaren arloan ikerketaren eta berrikuntzaren alde egindako apustu estrategikoa erakusten du. OIBE 2022-2025 estrategiaren helburuetako bat teknologia sanitarioen garapena sustatzea da, sistema sanitarioaren, sistema zientifiko eta teknologikoaren eta enpresa-sarearen arteko lankidetzaren bidez. Hala, sistema sanitarioan pertsoneri ematen zaien arreta hobetu ez ezik, euskal enpresak lehiakorragoak izango dira, eta gure ingurunean probatu eta baliozkotu ondoren, aurrerapen eta konponbide berriak emango zaizkie osasun-arloko erronkei.

Helburu hori betetzeko, beharrezkoa da Euskadiko sistema sanitarioaren eta I+G+B arloan EAEko ekosistema enpresarial eta zientifiko-teknologikoaren arteko lankidetzaren bultzatzea, lankidetzaren horiek artikulatzea ahalbidetuko duten tresnak bilatuz.

Bere egitura eta ahalmenengatik, Euskadiko sistema sanitarioak ezaugarri aproposak ditu EAEko ekosistema enpresarialaren eta zientifiko-teknologikoaren lehentasunezko bazkide bihurtzeko bere I+G+B jardueretarako. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua da Euskadiko sistema sanitario publikoaren ikerketaren muina, eta bere sorospen-sare zabalean garatzen du ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak. I+G+B sanitarioa gauzatzen laguntzeko plataforma zientifiko-teknikoak dituzten lau Ikerketa Institutu sustatu ditu bere barruan: hiru Osasun Ikerketako Institutu (OII), lurralde historiko bakoitzeko bana (Bioaraba, Biobizkaia eta Biogipuzkoa), eta Osasun Sistemen Ikerketarako Institutua, Biosistemak, erkidego mailan. Sistema sanitarioaren ikerketa-jarduerak, bere fase guztietan, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren (BIOEF) laguntza du kudeaketa eta koordinazio orokorrerako, eta horrek sareko lana eta I+G+B entitate guztien sinergia eta ahalmenen optimizazioa errazten ditu.

BIOEF (Osasun Sailaren korporazio-burua eta entitate laguntzailea den aldetik laguntzen eta dirulaguntzen kudeaketan) eta Institutuak dira EAEko enpresa-sistemarekin eta sistema zientifiko-teknologikoarekin lankidetzaren egituratzen duten entitateak, hirugarrenen berrikuntzaren arloko garapenerako bazkide diren aldetik. Jarduera horrek OIBE 2022-2025 estrategiaren 3. helburuari erantzuten dio, hau da, Osasun Ikerketako Institutuek enpresen eta teknologiaren ekosistemarekin duten lankidetzaren indartzeari.

Euskadiko sistema sanitarioak, bazkide nagusi den aldetik, enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoei sistema sanitarioarekin duten lankidetzaren erraztu nahi die, beren produktuak/zerbitzuak gara ditzaten: produktu berrien inguruan aholkatzea eta orientatzea, ideiak kontrastatzea, erronka kliniko berriak identifikatzea eta azterketa klinikoak egitea, pazienteen osasun-teknologiak baliozkotzeko eta testatzeko.

Osasun-teknologiak garatzeko eta baliozkotzeko jarduerak, bereziki gailu medikoei lotutakoak, sektore estrategiko bat garatzen laguntzen du, eta horren alde egiten du espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategiak; izan ere, dibertsifikatzeko aukera bikaina eskaintzen dio EAEko industria tradizionalari hazkunde azkarreko merkatu globaletarantz.

Laguntzen deialdi hau Medtech ekimenaren esparruan argitaratzen da, enpresen produktuak/teknologiak/zerbitzuak garatzeko prozesua lagundu eta bizkortzeko asmotan, nagusiki Euskadiko sistema sanitarioko ikerketa-institutuetan baliozkotzea edo testatzea erraztuz. Medtech enpresa-berrikuntzako ekosistemari laguntzeko diseinatutako tresna bat da, ZTBP Euskadi 2030 planaren 6. atalean (I+G eta berrikuntza babesteko tresnak) definitzen den moduan, zehazki 6.1.2 puntuan. Ekimen horren bidez, Osasun Sistema Publikoak euskal enpresen berrikuntzaren lagundu nahi du, osasun-teknologiak baliozkotzeko eta frogatzeko prozesuetan elkarlanean arituz. Azken batean, enpresen eta profesional sanitarioen arteko interakzioa sustatu nahi du, bai eta Osasun Sistemak enpresa-ingurunerako proba-banku edo «living lab» gisa funtzionatzeko erakutsitako ahalmena bultzatu ere. Hala, euskal enpresek EAEtik kanpoko beste osasun-sistema batzuetara nahitaez jo behar izatea eragotziko da.

Deialdi honek I+G+B proiektuak finantzatuko ditu, 6. eta 9. TRL (Technology Readiness Level) mailen artean (ingurune klinikoko lehen kontzeptu-probetatik hasi eta merkaturatu osteko jarraipen-azterketetaraino) dauden jarduerekin, azterketa klinikoen izenpean. Horri dagokionez, pazienteak zuzenean inplikatzeko dituzten mota horretako proiektuetarako (azterketa klinikokoak) erregulazio zorrotza dagoela aipatzea komeni da. Proiektu horiek garatzean honako hauek betetzen direla bermatu behar da: jardunbide kliniko egokiari buruzko arauak, azterketa klinikoak laguntzeko diren plataformen eskakizun teknikoak eta ikerketa mota hori arautzen duten irizpide etiko eta legalak. Azterketa klinikokoak egiteko erreferentziazko araudi orokorra honako hauek osatzen dute: 1090/2015 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, sendagaiekin egiten diren saiakuntza klinikokoak arautzen dituena; 2017/745 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko apirilaren 5koa, osasun-produktuekin egindako ikerketa klinikoak buruzko eskakizun orokorrak ezartzen dituena; eta 192/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21koa, osasun-produktuak arautzen dituena. Osasun-sistemako laguntza horren onuradun izango dira EAEn I+G+B jarduera bat gauzatzen duten enpresen proiektuak: mikroenpresak (mikro ETEak), enpresa txiki eta ertainak (ETEak) eta enpresa handiak, betiere proiektu horiek Zientzia eta Teknologiararen Euskal Sareko eragileekin lankidetzan egiten badituzte, garatu beharreko azterketa klinikoen kalitatea ziurtatzeko behar diren ahalmenak dituzten ikerketa sanitarioko zentroen kategorian.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoarekin, Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak ematea alde aurretik sartzen da Osasuneko sailburuaren 2024ko otsailaren 7ko Aginduan, zeinaren bidez onartzen baita Osasun Sailaren 2024ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioari buruzkoetan –Osasun Sailaren egoitza elektronikoa argitaratua–. Agindu honen bidez emandako laguntzek Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dauden helburuak lortzen lagunduko dute, zehazki, ikerketa eta berrikuntza arloa garatzen (3.3.– Ardatz estrategikoa. Ikerketa eta berrikuntza), I+G+B proiektuak finantzatuz. Proiektu horien emaitzek eragina izango dute biztanleriaren eta hurrengo belaunaldien ongizatean. Halaber, 2022-2025 aldirako Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Esparru Estrategiaren –hor oinarritzen da Agindu hau– helburu estrategikoetako bat indartzen lagunduko du, hau da, osasun-arloko ikerketaren eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez –Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (azken xedapenetako zazpigarrena, bi) aldatu zuen xedapen hori–, sektore publikoko fundazioek dirulaguntzak eman ahal izango dituzte, baldin eta atxikita dauden administrazio-organoaren baimena badute.

Deialdiaren zuzkidurari dagokionez, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean eta, haren barruan, BIOEFen ustiapen-aurrekontuan jasotakoaren arabera.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoaren dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak –publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia–, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoari jarraikiz, eta aintzat hartuta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra (honako hauek garatzen dute azken hori: 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Dirulaguntzei buruzko lege orokorraren erregelamendua onartzen duenak eta 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duenak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen aurka ez doan guztian), eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenak; era berean, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

2024ko urriaren 15a, asteartea

Hori guztia dela eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren hamaseigarren xedapen gehigarriko 1. apartatuan ezarritakoa betez, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala zehazten duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuak 2.b) eta 4.2 artikuluetan dioenarekin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak dioenarekin lotuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– BIOEF - berrikuntza + ikerketa + osasuna euskal fundazioaren Medtech ekimena garatu, baliozkotu eta erakusteko proiektuetarako laguntzak onartzea eta deitzea, eranskinean jasotzen den moduan.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzak jarraian aipatzen diren lege-testuetan xedatutakoaren arabera dira: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko araudia.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 24a.

Osasuneko sailburua,  
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.

2024ko urriaren 15a, asteartea

**1. ERANSKINA****Eskaera-orria / memoria teknikoa  
Garapena / baliozkotzea edo erakustea**

Data: 2024ko .....ren .....(a)

**ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK**

Entitatearen izena:

IFK:

Entitate mota (enpresak: *startup*, mikro ETEa, ETEa edo ez ETEa):

Kokapena:

Enpresaren jarduera orokorra:

**PROIEKTUAREN DATUAK**

Titulua:

**1. ESKAERAREN OINARRIZKO DATUAK****BERRIKUNTZA MOTA**

- Produktu sanitarioa       Medikamentua / Prod. Nutrazeutikoa / Prod. Kosmetikoa  
 Softwarea       Zerbitzua  
 Prozesua / Erakunde arlokoa

**SAILKAPEN MOTA/EREMUA\***

- Bioteknologia eta Diagnost. Molekularra       Asistentzia-/erakunde-berrikuntza  
 IKT (Osasuna)       Medikamentua – Farma       Materialak eta gailuak  
 Irudia       Beste batzuk

\* *ITEMA*sek ezarritako sailkapenarekin koherentea**PRODUKTUAREN EGUNGO HELDUTASUN-MAILA (TRL)**

- |                            |                            |                            |
|----------------------------|----------------------------|----------------------------|
| <input type="checkbox"/> 1 | <input type="checkbox"/> 4 | <input type="checkbox"/> 7 |
| <input type="checkbox"/> 2 | <input type="checkbox"/> 5 | <input type="checkbox"/> 8 |
| <input type="checkbox"/> 3 | <input type="checkbox"/> 6 | <input type="checkbox"/> 9 |

### INPAKTUA

- Gizartean                       Pazienteengan                       Profesionalengan  
 Osasun Sistemaren jasangarritasunean                       Irudian/ospean  
 Sistemaren irabazietan                       Enpresa-sektorean

### PRODUKTUA MERKATURATU ARTE IGAROKO DELA USTE DEN DENBORA

- ≥4 urte  
 1-3 urte  
 < 1 urte  
 Merkatuan

### LEHIA

- Merkatura iristetik gertu dauden antzeko produktuak/teknologiak/zerbitzuak daude  
 Merkatura iristetik urrunago dauden antzeko produktuak/teknologiak/zerbitzuak daude  
 Ez dago antzeko produktuen garapenik

### PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA

- Enpresak ez du merkatu-azterketarik egin  
 Enpresak merkatu-azterketa egin du  
 Enpresak merkatu-azterketa egin du eta finantzaketa-plana dauka

## 2. ESKAERAREN MEMORIA TEKNIKOA

**2.1.– TEKNOLOGIA/ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA (gehienez 500 hitz).** Artearen egoerari dagokionez, izaera berritzailea aipatu behar da:

**2.2.– EBIDENTZIA KLINIKOA (gehienez 500 hitz)**\_(idatzi testu labur bat eta adierazi argitalpen zientifikorik dagoen, ingurune klinikoan testatu den, non, etab.):

**2.3.– XEDE-POPULAZIOA**

**2.4.– PROIEKTUAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA (gehienez 500 hitz)**

**2.5.– LAN-PLANGINTZA: ekintzak, zereginak (gehienez 1.000 hitz)****2.6.– PROIEKTUAREN GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK (gehienez 1.000 hitz)**

Entitate parte-hartzaileen I+G+B esperientzia eta ahalmena: Zentro parte-hartzaileen errekrutatze-ahalmena, I+G+B laguntzeko plataformak, ekipamendu gehigarriaren premiak, proiektuaren ikerketa-taldearen eta ekipo teknikoaren egokitasuna, etab.

**2.6.1.– Ikerketa-taldea**

Izena (ikertzaile nagusia lehen lerroan)	1. abizena	2. abizena	NAN (letrarekin, eta zuriunerik eta zeinurik gabe)	Lantokia	Departamentua

**2.6.2.– Baliabide teknikoak**

**2.7.– ESPERO DIREN EMAITZAK (gehienez 500 hitz)** (Adierazi proiektutik ateratzea espero diren emaitzen aplikagarritasuna, erabilgarritasuna eta ekarpena osasunari dagokionez).

**2.8.– GASTUEN JUSTIFIKAZIOA (gehienez 500 hitz).** Eskatutako laguntzaren kontzeptuen justifikazioa. IV. eranskinean adierazitako informazio ekonomikoaren xehetasuna sartzea.

**2.9.– INGURUMEN- ETA GIZARTE-INPAKTUA (gehienez 500 hitz)** Energia-, klima- eta gizarte-trantsizioei eta proiektuan genero-ikuspegia txertatzeari laguntzea.

Enpresak onuradun izateko deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela deklaritzen dut

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (a)n

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ -

NAN: \_\_\_\_\_ -

Enpresaren legezko ordezkaria: \_\_\_\_\_ -

IFK: \_\_\_\_\_ -

2024ko urriaren 15a, asteartea

**2. ERANSKINA**  
**PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA ESKATZEA**

<b>PROIEKTUAREN TITULUA</b>
<b>ESPEDIENTE-ZENBAKIA</b>

<b>Agente eskatzailearen identifikazioa</b>	
<b>Enpresa eskatzailea</b>	

**Aurrekontua eta eskatutako laguntza****1) Proiektuaren aurrekontu osoa**

<b>Gastu-kontzeptua</b>	<b>2024</b>
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
<b>Aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>

**2) Eskatutako laguntzaren xehetasuna**

<b>Gastu-kontzeptua</b>	<b>2024</b>
Langileak	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €
<b>Aurrekontua, guztira</b>	<b>0,00 €</b>

--

**Sinatua: Enpresaren legezko ordezkaria**

### 3. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

jaunak/andreak ren  
legezko ordezkaria den aldetik Medtech ekimena garatzeko, baliozkotzeko eta erakusteko proiektuetarako laguntzen deialdiaren eskatzaile den aldetik, honako hau

#### ADIERAZTEN DU:

Ezarritako baldintzak betetzen ditu, baita BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren Medtech ekimena garatu, baliozkotu eta erakusteko proiektuetarako laguntzak arautzen dituen Aginduaren 3., 4. eta 13. artikuluetan deskribatutako betekizunak ere (2024ko .....(a)ren .....(e)ko EHAA, ..... zk.), eta ez dauka Agindu horretako laguntzak eskuratzea eragozten dion inolako inguruabarrik. Horrenbestez, espresuki, honako hau adierazten du:

- Egunean dauzka zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Egunean dauzka dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak.
- Ez dago Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan eta EAeko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeretako batean.
- Ez dauka administrazio- edo zigor-zehapenik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez dauka laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.
- Deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa dauka.
- Dokumentazio hori deialdia egin duen entitatearen esku jarriko du, hark hala eskatzen duenean.
- Konpromisoa hartzen du agindu honen xede diren laguntzak indarrean dauden bitartean aurrekoak betetzen jarraitzeko.
- Bete egiten ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrenean ezarritako betebeharrak. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (EAEONALTB) 50. artikulua 5. paragrafoa aldatu du.
- Ez dago Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan jasotako inguruabar eragozleetako batean ere.
- ETE bat bada, haren ezaugarriak bat datozela ETEen definizioarekin, Europar Batasuneko arauekin bat. Hain zuzen ere, enpresa txiki edo ertaintzat hartuko dira, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokorreko I. eranskina aintzat hartuz, 250 baino langile gutxiago dituzten enpresak, negozio-bolumena gehienez 50 milioi eurokoa edo txikiagoa dutenak, edota urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak. Enpresa txikitzat hartuko dira, berriz, 50 langile baino gutxiago

izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez dutenak. Bi kasuetan, elkartutako edo uztartutako enpresen langileak eta mugak 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera zenbatuko dira.

– Aurreko hiru zerga-ekitaldietan eta martxan dagoenean jasotako de minimis laguntzen zerrenda, 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari lotuta. Erregelamendu hori, hain zuzen ere, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta merkataritza-operazioetan berankortasunaren kontra egiteko neurriak ezartzei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuaren barruan egonik (markatu dagokiona):

Enpresak galdu-irabazien kontu laburtua aurkezten du, eta merkataritza-operazioetan berankortasunaren kontra egiteko neurriak ezartzei buruzko abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ditu.

Edo, hala badagokio:

Kontabilitate-araudiaren arabera, enpresak ezin du galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu, eta, hortaz, honekin batera doa, legezko ordainketa-epeak betetzen direla egiaztatzeko:

Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditorearen ziurtagiria, erregistro-zenbakiarekin , aipatutako 13.3 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Halaber, eragilea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten pean badago, hau da, eragilea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edo amaituta dagoen itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten pean badago, adierazi zein diren prozedura horiek.

(e)n, 2024ko aren (e)(a)n

SIN.:

2024ko urriaren 15a, asteartea

## 4. ERANSKINA

## Baliozkotze- eta garapen-proiektuaren memoria zientifikoa

ESPEDIENTEA:

TITULUA:

IKERTZAILE NAGUSIA:

IKERKETA SANITARIOKO ZENTROA:

ENPRESA ESKATZAILEA:

TEKNOLOGIA/ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA (gehienez 500 hitz):

JUSTIFIKATU BEHARREKO URTEAN EGINDAKO ZEREGINAK (gehienez 1.000 hitz):

LORTUTAKO EMAITZAK (gehienez 1.000 hitz):

**BESTE GOGOETA BATZUK (gehienez 500 hitz):**

2024ko urriaren 15a, asteartea

**5. ERANSKINA  
ENPRESAREN URTEKO LABURPEN EKONOMIKOA**

Enpresa:	
Proiektuaren erreferentzia:	
Proiektuaren izena:	
Proiektuaren iraupena (urteak)	
Proiektuaren arduraduna (enpresakoa):	

<b>GASTUEN LABURPENA</b>			
<b>GASTUAREN KONTZEPTUA</b>	<b>MEDTECH 2024 PROIEKTUAREN AURREKONTUA</b>	<b>ENPRESAK PROIEKTUARI EMANDAKO ZENBATEKOA</b>	
<b>LANGILEAK</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	
<b>ONDAS./ZERB.</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	
<b>BIDAIAK</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	

<b>EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK</b>

(e)n, 2024(e)ko ren (e)(a)n

<b>Sin. ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIA</b>